



OHIKO GALDERAK

030 eta 036 ereduak

1.	ZENTSUKO GALDERA OROKORRAK	1
2.	PERTSONA FISIKOEN ZERGA HELBIDEA.....	4
3.	ENTITATEEN ZERGA HELBIDEA	5

2025-02-26(e)an eguneratua

1. ZENTSUKO GALDERA OROKORRAK

1. Sortu berria den entitate batek IFZ zenbakia eskatu nahi baldin badu, non eta nola egin dezake eskaera?

Zerga helbidea Gipuzkoan duen entitate batek IFZ zenbakia eskatu nahi baldin badu, Herritarren arretarako bulego batean (aurretik hitzordua hartuta) edo Zergabidetik aurkeztutako idazki baten bitartez egin dezake eskaera. Edonola ere, entitate mota bakoitzari dagokion dokumentazio zehatzaz gain, 036 eredu bat aurkeztu beharko da, beteta eta entitatearen legezko ordezkariak sinatuta.

036 ereduak Zergabidean bete beharko da, "Aitorpen zirriborro berria" aukera erabilita, eta bertan 036 ereduak aukeratu beharko ba, aitortzailerik zehaztu gabe eta "Sortu" botoian klik eginda. Ereduak bete ostean, PDFn deskargatu beharko da (paperean aurkeztu nahiko balitz bezala).

2. Zerga helbidea Gipuzkoatik kanpo duen entitate batek alta eman behar du Gipuzkoako Foru Ogasunaren datu basean. Nola egin dezake?

Entitatea derrigortuta baldin badago 036 ereduak Gipuzkoan aurkeztera lurralde honetan zerga betebeharrak dituelako, eredu hori aurkeztu beharko du telematikoki (Zergabidetik) datu basean alta emateko, aurkezpen arrazoi gisa "Eragiketak hasi izana" markatuta.

Entitatea ez baldin badago derrigortuta 036 ereduak Gipuzkoan aurkeztera, halaber, eredu hori aurkeztu ahal izango du (bertan zerga betebeharrak jaso gabe) datu basean alta emateko, edo alta idazki bidez eskatu ahal izango du Zergabidetik, Gipuzkoako Ogasunean alta eman nahi izateko arrazoiak adieraziz eta IFZ txartela, telefono zenbaki bat eta posta elektronikoko bat helaraziz.

3. Bi 036 eredu aurkez al daitezke egun berean?

Ez. Nahiz eta bi 036 ereduak eragin data bera izan dezaketen –ereduetako bat IFZ zenbakia edota txartela eskatzekoa bada–, ezin dute aurkezpen data bera izan.

4. Entitate batek behin-behineko baja emanda edo IFZ ezeztatuta badu, aurkez al dezake Zergabidea plataformatik zentsu aitorpen bat?

Ez. Salbuespenezko kasu horietan, ezinezkoa izango da 036 ereduak telematikoki aurkeztea.

5. N letradun IFZ duen entitate ez-egoiliar batek eska al diezaioke beste N letradun IFZ bat Gipuzkoako Ogasunari?

Ez. Entitate ez-egoiliar bakoitzak N letradun IFZ bakarrik izan dezake Espainian.

6. Entitate ez-egoiliar batek establezimendu iraunkorra izateari uzten badio, bere W letra duen IFZ zenbakia N letra duen IFZ bihurtu al dezake?

Ez. Entitate ez-egoiliar batek establezimendu iraunkorra izateari uzten badio, IFZ deuseztatzea eskatu beharko du, eta, ondoren, hala badagokio, N letra duen IFZ eskatu beharko du. Bi eskaera horiek dagozkien 036 ereduak aurkeztuta egin beharko ditu.

7. N letradun IFZ duen entitate ez-egoiliar bat Gipuzkoan establezimendu iraunkor baten bidez lanean hasten bada, W letradun IFZ bihurtu al dezake bere aurreko N letradun IFZ?

Ez. W letra duen IFZ eskatu beharko du establezimendu iraunkorrarentzat, dagokion 036 ereduak aurkeztuta.

8. Jaraunspen jasogabe batek, jarauntsia onartu eta, hala badagokio, ondasun erkidego bat eratu ondoren, eska al dezake IFZri eustea, OEak erabil dezan?

Ez. Jaraunspen jasogabea jaraunspena onartzean desegiten da, eta, beraz, haren IFZ deuseztatzea eskatu beharko du. Bere aldetik, eratutako OEak IFZ berria eskatu beharko du.

9. Pertsona fisiko batek laster kontsulta mediko bat irekiko du. Aurkez al dezake eragiketak hasi aurreko 036 eredu bat?

Ez, BEZik gabeko jarduera delako. Eragiketak hasi aurreko zentsu aitortpena aurkezten da ondasun salmentak edo zerbitzu prestazioak hasi aurretik jasandako BEZaren kuotak itzultzea eskatzeko. Beraz, zergaduna BEZaren aitortpenak aurkeztera behartuta dagoenean baino ez da aurkezten.

10. Pertsona fisiko batek nekazaritza jarduera bat hasiko du laster. Aurkez al dezake eragiketak hasi aurreko 036 eredu bat?

Bai, BEZaren 3/2023 FDAren 111.5 artikuluan jasotako ondorioekin. Etorkizuneko jarduera Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantzako Araubide Berezian sartzen bada, hasi aurretik jasandako kuoten kenkariak araubide horri uko egitearen ondorio berberak izango ditu.

11. Zergadun batek bere kontura txosten bat egingo du enpresa batentzat, faktura bakar bat bidaliz (BEZari lotutako jarduera). Behartuta al dago Enpresarien, Profesionalen eta Atxikitzaileen Erroldan alta ematera?

Bai, behartuta dago hasierako 036 eredu bat aurkeztera, nahiz eta jardueraren amaiera hurrengo egunean gertatu.

12. Jarduneko abokatu batek higiezin bat alokairuan jarriko du, horretarako enplegatutik kontratatu gabe eta bere zerga helbidea mantenduz. Beste 036 eredu bat aurkeztu behar al du?

Ez. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren ondorioetarako aurkeztu beharreko 840 ereduaz gain, aldaketako 036 eredu bat aurkeztu beharko luke soilik baldin eta jarduera berri horrek ekarriko balu daturen bat aldatzea 036 ereduko 2. atalean (kokalekua), 3. atalean (zentsuko bestelako datuak), 4. atalean (eskaera bereziak) edota 5. atalean (zerga egoera eta aitortpen-likidazioak). Eskura ditugun datuekin, ez dago zentsu egoeraren aldaketarik, BEZa aitortzera behartuta jarraituko baitu (orain bi jarduerengatik), eta ez du PFEZko errenta zenbatesteko erregimenaren aldeko aukerarik egin beharko, alokatutako errentak ondasun higiezinaren etekin gisa kalifikatuko baitira zerga horretan.

13. Nola eman daiteke alta Batasun barruko Operadoreen Erregistroan (BBOE)?

Beti ere zerga helbidea Gipuzkoan badu, 4. ataleko 161. laukia markatuko du eragiketak hasi aurreko zentsu aitortpen batean, eragiketak hasi izanaren zentsu aitortpen batean edo aldaketako zentsu aitortpen batean. Eragin datak ezin izango du izan aurkezpen data baino lehenagokoa.

14. Nola aurkez daiteke 036 eredua?

[036 eredua](#) aurkezteko bi modalitate erabili ahal izango dira: aurrez aurre lagunduta edota internet bidez (Zergabidea), zergadunaren eta aurkezpenaren arrazoiaren arabera.

15. Nola alda daiteke aurretik aurkeztutako 036 eredu bat?

Zentsu Atalari zuzendutako idazki bat aurkeztu beharko da aldaketa eskatzeko, eta 036 eredu bat erantsi beharko zaio, egin nahi den aldaketaren ostean geratuko den moduan beteta.

16. Zertarako balio du harremanetarako helbide elektroniko bat komunikatzeak 030, 036 edo DAT ereduan?

Bide horretatik, informazio ohar bat jasoko duzu, irakurtzeke dagoen jakinarazpen bat dagoela esanez. Jakinarazpena sartzeko, Gipuzkoa Atarian identifikatu beharko zara B@KQ gakoarekin edo baliozko ziurtagiri digital batekin, eta Jakinarazpen Elektronikoen Postontzira jo.

17. Zerga helbidea Gipuzkoan duen zergadun batek egiten dituen jarduera ekonomikoetako bati bakarrik utzi nahi dio. Zer zentsu izapide egin beharko ditu?

Bere jarduera ekonomikoren batek indarrean dirauenez, 036 eredua aurkeztu beharko du soilik baldin eta zirkunstantzia horrek zentsu egoeran aldaketaren bat eragiten badu (jarduera nagusia, jardueraren helbidea, zerga-betebeharrak, etab.), [Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergarekin](#) lotutako izapideak egiteaz gain.

18. Amaierako 036 eredu batek automatikoki eragiten al du baja Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan?

Amaierako 036 eredu bat aurkeztean, baja emango zaie automatikoki Gipuzkoako JEZn alta emanda dauden jarduera guztiei (etxebizitzak alokatzeko jarduerari izan ezik: 1.8611 epigrafea), baldin eta 036 ereduan adierazitako eragin data indarrean dagoen urte naturalekoa bada edo, lehenagokoa bada, gehienez ere bi hilabetekoa.

19. OE bateko erkideak, erkide izateagatik, 036 eredua aurkeztu behar al du?

Bai, baldin eta OEak jarduera ekonomiko bat egiten badu PFEZren ondorioetarako. Entitatea Zentsuan alta emanda dagoenean, errentak esleitzeko entitate bateko kideak bere aldaketako 036 propioak aurkeztuko ditu, partaidetza horren berri emateko eta dagozkion aukerak egiteko (4. atala), baita horren ondoriozko zerga-betebeharrak eta, hala badagokio, enpresaburu indibidual gisa dagozkionak deklaratzeko ere (5. atala).

2. PERTSONA FISIKOEN ZERGA HELBIDEA

20. Zein da persona fisiko baten zerga helbidea?

Ohiko egoitza duen lekuarena.

21. Jarduera ekonomikorik ez duen pertsona fisiko batek Udalean aldatu du bere errolda. Nahikoa al da hori zerga helbidea aldatzeko?

Ez, Ogasunari jakinarazi beharko dio 030 eredu baten bidez.

22. Lehen Gipuzkoatik kanpo bizi zen eta Gipuzkoako datu basean agertzen ez den pertsona fisiko batek zerga helbidea Gipuzkoara aldatu du. Zer zentsu eredu erabili beharko du horren berri emateko?

030 eredua erabili beharko du Gipuzkoako Foru Ogasunari bere datu pertsonalak eta zerga helbide berria jakinarazteko. Eragin data (ereduaren 25bis eta 56 laukitxoak) Gipuzkoan duen lehen helbidearena izango da.

Bestalde, zerga helbidearen aldaketa jatorrizko Zerga Administrazioari jakinarazi beharko dio.

23. Gipuzkoatik kanpo bizi den pertsona fisiko batek jarduera ekonomiko bat hasi du Gipuzkoan, zerga helbidea hona ekarri gabe. Zer zentsu eredu erabili beharko du horren berri emateko?

Zergadun hori gure datu basean agertzen ez bada, 030 eredu bat aurkeztu beharko du lehenik, bere datu pertsonalak eta harremanetarako datuak jakinarazteko.

Gipuzkoako Foru Ogasuneko Zergapekoen Erroldan alta emanda dagoen ala ez kontsulta daiteke Zergabideko [ERROLDA DATUAK](#) atalean.

Ondoren, 036 eredu bat aurkeztu beharko du, Gipuzkoan jarduerari ekin diola jakinarazteko. 5. atalean, Gipuzkoan egon daitezkeen zerga-betebeharrak adieraziko ditu (adibidez, hemen zerbitzuak ematen dituzten langileei egindako atxikipenak). Ez badago behartuta Gipuzkoan BEZaren aitortpenak aurkeztera, zerga helbidea hemen ez duelako eta zergak hainbat lurraldetan ordaintzeko kopuruetara iristen ez delako, Ekonomia Itunaren Legea aplikatu dakiokela zehaztuko du (115. laukia)

Gainera, hala badagokio, bere zerga helbidea duen lekuko Zerga Administrazioan zentsu eredu baliokidea aurkeztuko du.

24. Gipuzkoan bizi den pertsona fisiko batek Gipuzkoatik kanpo hasi du bere jarduera enpresari edo profesional gisa, zerga helbidea hara aldatu gabe. Zer zentsu eredu erabili beharko du horren berri emateko?

Jarduera egiten den lurraldean dagozkion zentsu betebeharrez gain, 036 eredu bat aurkeztu beharko du Gipuzkoan, zerga helbideari lotutako aukerak (4. atala) eta zerga-betebeharrak (5. atala) adieraziz (PFEZ eta, hala badagokio, atxikipenak, BEZ aitortpenak).

25. Enpresari edo profesional batek zerga helbidea aldatu du. Jakinarazi behar al du?

Bai, egoitza fiskalaren aldaketa beti jakinarazi behar da. Kasu honetan, pertsona fisikoa denez, 030 eredu bat edo 036 eredu bat (2. atala) aurkeztuz jakinarazi ahal izango du.

26. Lehen Gipuzkoan bizi zen eta jarduera ekonomikorik ez duen pertsona fisiko bat beste lurralde batera joan da. Nola jakinarazi behar dio Ogasunari?

030 eredu bat aurkeztu beharko du aldaketa egiaztatzen duen dokumentaziotik ondorioztatzen den eragin datarekin, bai Gipuzkoan, bai lurralde berrian.

27. Jarduera ekonomikoa duen pertsona fisiko bat, lehen Gipuzkoan bizi zena, beste lurralde batera joan da. Nola jakinarazi behar dio Ogasunari?

036 eredu bat aurkeztu beharko du, honako hauek kontuan hartuta:

Gipuzkoan jarduera erabat uzten badu, amaierako 036 eredu bat aurkezteko du (2. eta 6. atalak).

Jarduera, partzialki edo osorik, lurralde honetan mantentzen badu, aldaketako 036 eredu bat aurkeztuko du (2. eta 5. atalak), Gipuzkoan egon daitezkeen betebeharrak adieraziz (adibidez, zerbitzuak hemen ematen dituzten langileei egindako atxikipenak). Dagoeneko ez badago behartuta Gipuzkoan BEZaren aitorpenak aurkeztera, zerga helbidea hemen ez duelako eta zergak hainbat lurraldetan ordaintzeko kopuruetara iristen ez delako, Ekonomia Itunaren Legea aplikatu dakiokela zehaztuko du (115. laukia).

Pertsona fisikoa izanik, 030 eredu bat aurkeztu ahal izango du zerga helbidearen aldaketa jakinarazteko; baina, kasu horretan, 036 eredu bat ere aurkeztu beharko du, helbide-aldaketa horrek bere zerga-betebeharretan izandako eraginak adierazteko, aurreko paragrafoetan azaldu den moduan.

3. ENTITATEEN ZERGA HELBIDEA

28. Zein da entitate baten zerga helbidea?

Administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza zentralizatuta dauden lekua (egoitza sozialarekin bat etorri edo ez). Aurrekoaren arabera zehaztu ezin denean, ulertuko da entitateak Gipuzkoan duela zerga helbidea, baldin eta, ibilgetuaren baliorik handiena Euskal Autonomia Erkidegoan egonik, Gipuzkoako Lurralde Historikoan duten ibilgetuaren balioa handiagoa bada beste bi lurralde historikoetariko edozeinetan duten ibilgetuarena baino.

29. Zerga helbidea Gipuzkoatik kanpo duen entitate batek Gipuzkoara aldatu du bere zerga helbidea. Zer zentsu izapide egin beharko ditu?

Beste lurralde batetik datorren entitate batek bere zerga helbidea Gipuzkoan ezartzen badu, Gipuzkoako Foru Ogasunari eskatu beharko dio IFZ txartel berri bat emateko. Une horretatik aurrera, txartel hori izango da baliozkoa ondorio guztietarako.

Entitate hori jadanik Gipuzkoako Ogasunaren datu basean baldin badago (alta aurreko uneren batean eskatu zuelako), 036 eredu bat aurkeztu beharko du Zergabidetik, helbide aldaketa dela eta IFZ berria eskatzeko.

Entitate hori ez baldin bada inoiz Gipuzkoako Ogasunaren datu basean altan egon, ezin izango du IFZ eskatzeko 036 eredu Zergabidetik aurkeztu; kasu honetan, IFZ txartel berria eskatzeko idazki bat aurkeztu beharko du Zergabidetik, eta horri atxiki beharko dizkio 036 eredu bat (1., 2, 3., 5. atala eta I Eranskina beteta) eta helbide aldaketa justifikatzen duen dokumentua (behar bezala inskribatua, hala baldin badagokio). 036 eredu hori Zergabidean bete eta deskargatu beharko da ("Aitorpen zirriborro berria" aukera erabilita, 036 eredu aukeratu baina aitortzailerik zehaztu gabe, "Sortu" botoia klikatu aurretik).

Behin IFZ txartel berria lortuta, jatorrizko Administrazioari jakinaraziko dio, zentsu eredu baliokide baten bidez, zerga helbide berria Gipuzkoan duela, eta aldaketak bi lurraldeetan ondorioak izango dituen data bera izan beharko du.

Ondoren, beste 036 eredu bat aurkeztu beharko du, eragiketa hasierakoa, zerga helbidea Gipuzkoan izateagatik dagozkion zerga betebeharrak adierazteko (hala baldin badagokio, BEZa, Sozietateen gaineko Zerga, etab.).

30. Zerga helbidea Gipuzkoan duen entitate batek Gipuzkoatik kanpora aldatu du bere zerga helbidea. Zer zentsu izapide egin beharko ditu?

Kasu horretan, lehenik eta behin, Zerga Administrazio berrian IFZ txartel berria eskuratu beharko du, eta, ondoren, aldaketa horren berri eman beharko dio Gipuzkoako Ogasunari, bi egoera posible hauekin:

Gipuzkoan jarduera erabat uzten badu, amaierako 036 eredu bat aurkezteko du (2. eta 6. atalak).

Jarduera, partzialki edo osorik, lurralde honetan mantentzen badu, aldaketako 036 eredu bat aurkeztuko du (2. eta 5. atalak), Gipuzkoan egon daitezkeen betebeharrak adieraziz (adibidez, zerbitzuak hemen ematen dituzten langileei egindako atxikipenak). Dagoeneko ez badago behartuta Gipuzkoan BEZaren aitorpenak aurkeztera, zerga helbidea hemen ez duelako eta zergak hainbat lurraldetan ordaintzeko kopurueta iristen ez delako, Ekonomia Itunaren Legea aplikatu dakiokela zehaztuko du (115. laukia).

31. Espainiako lurraldean egoiliar ez den zergadun batek zein kasutan izango du zerga helbidea Gipuzkoan, zerga-betebeharrak betetzeari dagokionez?

1. Establezimendu iraunkorraren bidez jarduten badute, negozioen administrazio-kudeaketa edo zuzendaritza Gipuzkoan egiten denean. Aurreko irizpidearen arabera ezin denean zehaztu zerga helbidea non dagoen, ibilgetuaren baliorik handiena kokatzen den lekuarena hartuko da.
2. Establezimendu iraunkorraren bidez jarduten ez badu:
 - a. Ondasun higiezinetatik eratorritako errentak lortzen badira, ordezkariaren zerga helbidea Gipuzkoan dagoenean eta, horren ezean, ondasun higiezina lurralde horretan dagoenean.
 - b. Aurreko letretan aipatu ez diren gainerako kasuetan, ez-egoiliarren ordezkariak edo, halakorik ezean, erantzule solidarioak zerga helbidea Gipuzkoan duenean.

Nolanahi ere, zergadun ez-egoiliarrek atzerrian duten egoitza ere 030 eredu baten bidez jakinaraziko dute, edo, 036 eredua aurkeztu behar badute, eredu horren II. eranskinaren bidez.